

MADALEN

Zelai onetan ospatu dogu
Madalenaren etxean
egitekorik nagusia
Euskalerra ederrean,
bizi Jaubeak agindu euskun
maite giro onenean,
ospatu, gogoz, nere bizia
zuen alkartasunean.

Gaurko eguna, egiz, da eder
gutziz gogoangarria,
bere sustraia parkamena da
nekien aringarria,
samintasunak kendu eutsazan
itzirik garbi garbia,
lorpean egon emakumeak
urrez jantzi dau bizia.

Jesus maitia zerutik dator
ongi-naiez apaindurik,
ez dau nai zigor ez makillarik
semerik ondatzekorik,
maitasun utsa eskeini dautso
Madalenari bizirik,
zerutar urrez eta eskarrez
goitik beraiño jantzirik.

ADISKIDE NAGUSI

Egun on baten alkatu gara
geure Aitaren etxean,
gure barneko sinismen garrak
deituta Aitarenean,
egi egitan esan bear dot
danok gagoz poz batean,
egi obarik ez da izango,
inoiz, gure biotzean.

Egille Bera, emen, daukagu
anai arreben pozetan,
ixil ixilik, bagira dago
maitasun gozonenetan,
entzun maiteok, dirausku berak
kristauen etxe onetan,
ementxe, nago, beti, zuekin
alkartasun onenetan.

Zuek zarie nire maiteak
ontasunez indarturik,
sinismen garra ondu daitela
biotz barruan suturik,
ondoren dator anaitasuna
zeruko argiz jantzirik,
ate nausia zabaltzen daben
urre-giltza eskeinirik.

Paulin

LAMIÑAK

Lamiñak zer diran ba-dakigu, baiña aztertu daigun
onein jatorria.

Euskaldunak itz ta gaia erromatarrikantik etorria
dogu, baiña oneik elendarrakandik artu eben.

Antxiñako idazleen artean lamia itxasoko jainko-
emea da, K.a. 632n. urtean Scila lez aitatzen da lenen-
goz, Scila'ren alabea da, Euripides'ek (K.a. 480)
Libia'tik etorria dala diño, beste batzuk errege-etxekoa
dala diño, esaterako Aristofanes'ek, eta mamu-tzar
itxurakoa da, panpiroen girokoa.

Izeka-liburuetan agertzen da Lamia eta umeen are-
rioa da.

Aristófanek (K.a. 427) Lamia itxusia ta gorroto-
garria dala diño. Zeus'egaz maitemindu zala eta izaerea
aldatzeko eskubidea emon eutson onek eta usain txar-
reko pistitzar lez agertzen da, umeak ilten da zalea.

Pausanias'ek (180) eta Plutarko'ko (50) begiak
kendu eta ipiñi egiteko almena emoten dautsoe.

Geroago idazle askok aitatzen dabez lamiak, Hora-
ti'k be bai. Tertuliano be bai. Biblia'n be Isaias'ek aita-
tzen dau guzurrezko jainkoen artean (39,14) Lilit lez.

Lamiñai buruz liburuak idatzi ziran XVI eta XVII
gizaldietan. Gero sorgin lez agertzen dira.

Euskaldunen artean ezagunak dira iparraldean naiz
Egoaldean. Erreketan dabiltz eta leku askotan agertzen
dira lamin-iturriak, Lamindano, Lamiako, zubiak egi-
ten be badakie, Laminarrieta toki-izen zabala da, eta
Azkue'k izen oneik gogoratzen dauz: Labiano (Lamia-
no), Lamiaran, Lamikiz, Laminazulo, Laminapozu...

Leku batzutan erdi andra erdi-arrain dira. Gizon
batek orrazia ostu eutsen eta gabeen leioa jo eta esan
eutsoen: "Peru Maralako miru eratsia, ekazu orrazia
edo kenduko dautzuk kortako ganadua edo azkazia".

Lamiak sorgiñakaz eta Mari'gaz zer-ikusia dauke.

Olazar'tar Martín'ek